



BERRIAK
Hernani



DIRU-LAGUNTZA HITZARMENA

1. *Onuraduna:*

Elkartearen izena: "Berriak" Hernaniko merkatarien eta ostalarien elkarte

IFK zenbakia: G-20448593

Helbidea: Latsunbe 28 – Villa Ave Maria (20120 Hernani)

K/K zenbakia (20 digitu): ES89 3008 0170 15 1019863321

Ordezkarria (izen-abizenak eta N.A. zenbakia): Tomás de Diego Peña NAN 72432663M

2. *Hitzarmenaren xedea.*

Herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzea eta, bide horretatik, elkarte babestea.

Testu inguru berean "Berriak" Hernaniko Merkataria eta Ostalarien Elkartearen asmoa da Hernaniko udalerrria merkataritza, zerbitzu eta aisialdi gune gisa dinamizatzea, kontsumitzaileentzako erakargarri eginez eta zerbitzu pertsonalizatua emanez, merkataritza hurbileko zerbitzu bezala senti dezaten.

Ekintza zehatzak diru-laguntza eskaeran aurkeztu ditu Berriak elkarteak.

Udalerrian antolatzen diren ekintzen partaide egin nahi dira hernaniar guztiak.

3. *Interes orokorraren justifikazioa.*

- Herriko merkataritzari laguntza emanaz enplegua sustatzen da, herritarren bizi kalitatea hobetzen da, oro har merkataritza eskaintza zabala bermatzeko pausoak ematen dira eta herria bizirik mantentzen da. Komertziorik gabeko herria hilik dago.
- *Berriak* elkarte irabazi asmorik gabekoa da. Merkatarien, ostalarien eta herriko zerbitzuen sektorearen ordezkari aritzen da hauen interesak defendatuaz. Horretarako lan mahai eta foroetan parte hartzen du, banakako aholkularitza eta kudeaketa profesionala eskaintzen du, doako formakuntza programak sortu edo bideratzen ditu, animazio eta dinamizazio ekintzak burutzen ditu...
- Hernanin dagoen merkataritza eta ostalaritza elkarte bakarra da. Horretatik, diru-laguntza zuzena ematen dio Udalak, deialdi publikoa egin gabe.
- Udal diru-laguntzen plan estrategikoaren 6. lerro estrategikoarekin bat egiten du bete-betean: *Sustapen ekonomiko eta soziala*. Helburu estrategikoak: garapen ekonomiko jasangarria eta enpleguaren sustapenaren alde egitea, herritar guztien bizi kalitatea eta ongizatea hobetzeko neurriak sustatzea. Helburu zehatzak: enplegua sortu eta baliabideen jasangarritasuna bermatzen dute enpresa proiektuak hazten eta finkatzen laguntzea, kalitatezko enpleguaren sorpena sustatzea, gertuko merkataritza dinamizatzea eta sustatzea.



BERRIAK
Hernani



- Udal diru-laguntzen plan estrategikoaren 4. lerro estrategikoarekin ere bat egiten du: *Euskara sustatu*. Helburu estrategikoa: euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea. Helburu zehatzak: merkataritzan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzea, bezeroen eta merkatarien edo ostalarien artean euskararen erabilera sustatzea.

4. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kontsignazioa.

Zenbatekoa eurotan: 27.000,00 €

Aurrekontu Baimendu zenbakia: AD 12 2019-00-000103-000

Partida zenbakia (diru-laguntza izenduna): 1 02.481.01.241.00.2019 (4552)

BERRIAK ELKARTEA-HITZARMENA

5. Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta moduak.

Hitzarmena indarrean egongo da: sinatzen denetik, gehienez ere 4 urte (2019, 2020, 2021 eta 2022). 4 urte horiek igaro ondoren, hurrengo 4 urteetan urtez urte berrituko da bi aldeak ados egonez gero.

Diru-laguntzaren %60 (16.200,00 euro) aurrerapen gisa ordainduko da, hitzarmenaren onarpenarekin batera.

Diru-laguntzaren %40 (10.800,00 euro) justifikazioa aurkeztean ordainduko da, Alkatearen (edo eskuordetza) ebazpen bidez, ondoko puntuan zehazten diren dokumentuak aurkeztean.

6. Diru-laguntzaren justifikazioa.

1. Epea: hitzarmena indarrean dagoen urte bakoitzeko maiatzaren 31 arte.
2. Diruz lagundutako jardueraren memoria, ondoko gutxieneko edukiarekin: Proiektuaren azalpena; diru-laguntza zer helburutarako eman den; egindako jarduerak, ezarritako helburuak eta lortutako emaitzak.
3. Egindako jardueren kostua justifikatzeko balantze ekonomikoa: Diru sarreraren eta gastuen balantze laburtua; Egindako gastuen zerrenda sailkatua, kontzeptuen arabera antolatuta eta guztizkoak zehaztuta. Zehaztuta izango ditu, orobat, hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketa data; Fakturak edo pareko frogak balioa duten agiriak; eta, hala badagokio, ordainketaren egiaztagiriak; Diruz lagundutako jarduerara finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
4. Zerga betebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna (eta Gizarte Segurantzaren hala badagokio).
5. Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna.



BERRIAK
Hernani



7. Aplikatu beharreko araubide juridikoa.

Diru-laguntza hau arautuko du, diru-laguntza emateko irizpen honetan ezarritakoak ez ezik, Diru-Laguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21koa) ezarritakoak, bai eta Udal Diru-laguntzen araudiak.

Zuzeneko diru-laguntzetarako baldintzak:

- Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusia egotea (887/2006 Errege Dekretua, 65. artikulua).

8. Onuradunaren aitortpena.

Onuradunak aitortzen du ez dagokiola diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan diru-laguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

Zehatzago esan, erakunde onuradunak egiaztatzen du egunean dagoela zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta ez duela behartze bidean itzultze prozedurengatik ordaintzeke dagoen diru-kopururik. Era berean, aitortzen du ez dagoela sartuta behartze bideko kobrantzako prozeduretan, Udalarekin edo haren erakundeekin egindako zorrak direla-eta.

9. Helburu bera duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin emandako diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da diru-laguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, diru-laguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

10. Kontabilitate liburu eta erregistroak, diru-laguntza egoki justifikatzea bermatzeko eta finantzak kontrolatzeko eskatuak.

Onuradunak jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izan beharko ditu, behar bezala ikuskatuak, aplikatzeko zaion merkataritzari eta sektoreari buruzko legedian xedatua den moduan. Justifikatzeko agiriak gorde beharko ditu, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko, lau urtez.



BERRIAK
Hernani



Era berean, laguntza eman beharko die Udal Administrazioiko organoei, eta haiek eskatutako agiri guztiak eskuratu beharko dizkie; berdin jokatu beharko du Europako Batasuneko arauen arabera finantza kontroleko eginkizunak dituzten organoekin ere.

11. Berriak elkarteak antolatutako jardueren inguruko betebeharrak:

Berriak Elkarteak antolatzen dituen ekintzen berri eman beharko dio Udalari, zentzuzko epe baten barruan.

Aipatutako ekintzak antolatzeko Babes Zibileko Asegurua eduki beharko du.

Udalak diruz lagunduta antolatzen dituen ekintzen publizitate guztian, Berriak Hernaniko Udalaren kolaborazioa adierazi beharko du. Beti ere, Udalaren irudi korporatiboaren arauak eta hizkuntza irizpideak errespetatuaz.

12. Euskararen erabilpena

Udalak diruz lagundutako jarduera guztietan Berriak elkarteak ondorengo hizkuntza irizpideak beteko ditu:

- **HERRITARREI ZUZENDUTAKO JARDUERETAN IDATZIZKO nahiz AHOZKO KOMUNIKAZIOA HONELA EGINGO DA:**

Herritar orori zuzendutako idatzi, publizitate, iragarki, ohar eta gainerakoak, eta ahozko komunikazioa euskaraz izango da.

Hizkuntza bat baino gehiago erabili behar denean, euskarak izango du lehentasuna.

Haur eta gazteei zuzendutako jardueretan idatzizko nahiz ahozko komunikazioa euskaraz egingo da.

- **PAISAIA**

Errotuluak, seinaleak eta kartelak (elkarteak antolatutako azoketako postuetan jartzen direnak barne) euskaraz idatziko dira ondorengo kasu hauetan:

a) Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.

Adibideak: Horrela, ez: pateak - patas; tomateak - tomates; txurroak - churros.

Horrela, bai: pateak, tomateak, txurroak

b) Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.

Horrela, ez: Komunak -baños

Horrela, bai: Komunak



BERRIAK
Hernani



c) Oso zabalduak dauden hitzetan (musika eskola, kultur etxea...).

Honela, ez: Kontzertua Biteri Kultur Etxean izango da.

El concierto será en la casa de cultura biteri

Honela, bai: Kontzertua Biteri Kultur Etxean izango da.

El concierto será en Biteri Kultur Etxea

Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean, eta hizkuntza bat baino gehiago erabili behar denean, euskarak izango du lehentasuna.

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko.

Hernanin, 2019ko martxoaren 11n

Hernaniko Udalaren izenean



Luis Intxauspe Arozamena
Hernaniko alkatea

Berriak elkartearen izenean



Tomás de Diego Peña
Berriak elkarteko lehendakaria

